

2022ko abuztuaren 18a, osteguna

157

Jueves, a 18 de agosto de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DONOSTIAKO UDALA

Abegi Etxeko Udal araudiaren behin betiko onarpena.

Donostiako Udalbatzak, 2022ko maiatzaren 26an egindako osoko bilkuran, ondorengoa erabaki zuen:

- 1. Abegi Etxeko Udal araudia hasiera batean onartzea.
- 2. Espedientea informazio publikoko eta interesdunen entzunaldiko izapidean jartzea hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko.
- 3. Ez bada erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten, akordioa behin betiko onartuta dagoela ulertuko da.

2022ko ekainaren 9an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen aipatutako araudiaren hasierako onarpena.

Iragarki horren bidez, espedientea jendaurrean ikusgai jarri zen, interesdunek kexak eta egoki iritzitako iradokizunak aurkezteko, emandako epean.

Epe hori 2022ko uztailaren 21ean bukatu zen eta ez zen erreklamazioarik aurkeztu.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan xedatutakoarekin bat, egun horretatik aurrera hasierako onarpen erabakia behin betiko onartutzat jo daiteke eta, horren ondorioz, Abegi Etxeko Udal Araudiaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da. Honen edukia honako hau da:

ABEGI ETXEAREN ARAUDIA

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen sistema integratu bat antolatu eta egituratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan herritar guztiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko duten eskubide subjektiboa bermatzeko, betiere sistema horretan sartzeko baldintza orokorren eta prestazio edo zerbitzu bakoitzerako arautzen diren sarbide-baldintza espezifikoen esparruan. Zehazki, lege horrek eguneko arreta-zerbitzua eta gaueko harrera-zerbitzua lehen mailako arreta-zerbitzu gisa sartzen ditu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan (22.1.7 eta 22.1.8 artikuluak), eta zerbitzu horien prestazioa udaleko gizarte-zerbitzuei dagokiela ezartzen.

Bestalde, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoak, horien oinarrizko ezaugarriak jasotzen ditu 1.7 eta 1.8 fitxetan (eguneko arreta-zerbitzuei eta harrera-zerbitzuei buruzkoak).

Abegi Etxeari buruzko araudia 2004an onetsi zen, hau da, 12/2008 Legea eta 185/2015 Dekretua indarrean sartu aurretik. Horregatik, beharrezkoa da beste araudi bat onestea, indarrean dagoen sektore-araudira egokitzeko. Hain zuzen, erregula-

AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

Aprobación definitiva del reglamento del Centro Municipal de Acogida Social.

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de mayo de 2022, adoptó el siguiente acuerdo:

- 1. Aprobar inicialmente el reglamento del Centro Municipal de Acogida Social.
- 2. Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.
- 3. En el caso de que no se presentase ninguna reclamación o sugerencia se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Con fecha 9 de junio de 2022 se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa la aprobación inicial del reglamento antes mencionado.

Por medio de dicho anuncio se sometió a información pública el expediente, a cuyos efectos las personas interesadas podían, durante el plazo indicado, presentar las reclamaciones y sugerencias que se tuvieran por conveniente.

Finalizado dicho plazo el 21 de julio de 2022, no consta que haya sido presentada reclamación alguna.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local, a partir de esa fecha puede entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial y procede, por tanto, la publicación del texto íntegro del Reglamento del Centro Municipal de Acogida Social cuyo contenido es el siguiente:

REGLAMENTO DEL CENTRO MUNICIPAL DE ACOGIDA SOCIAL

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, ordena y estructura un sistema integrado de servicios sociales de responsabilidad pública, a fin de garantizar en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el derecho subjetivo de toda la ciudadanía de acceso a las prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, dentro del marco de los requisitos generales de acceso al mencionado sistema y de los requisitos de acceso específicos que se regulen para cada prestación o servicio. En concreto, esta ley incluye el servicio de atención diurna y el servicio de acogida nocturna en el catálogo de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, como servicios de atención primaria (artículos 22.1.7 y 22.1.8), y establece que su prestación corresponde a los servicios sociales municipales.

Por su parte, el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, sobre la cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, en sus fichas 1.7 y 1.8, relativas a los servicios de atención diurna y servicios de acogida, recoge sus caracterísicas básicas.

El vigente reglamento del Centro Municipal de Acogida Social fue aprobado en el año 2004, es decir, con anterioridad a la entrada en vigor de la Ley 12/2008 y del Decreto 185/2015. Por ello, se hace necesario aprobar un nuevo reglamento, con el ob-

www.gipuzkoa.eus 1 LG.:S.S.1-1958

zio berriak modu esanguratsuan eragiten dio harrera-zerbitzuaren definizioari; izan ere, 2004ko araudian, zerbitzu hori eguneko 24 orduko egonaldi gisa taxutu zen, eta erregulazio berrian, ostera, bi zerbitzuk osatzen dute hura: gaueko harrera-zerbitzuak eta eguneko arreta-zerbitzuak.

Bigarrenik, araudiak familientzako harrera-zerbitzua ere arautzen du. Zerbitzu hori, prestazioen eta zerbitzuen zorroan berariaz jasota ez badago ere, Udalak ematen du, gure testuinguruan sortu den gizarte-errealitateari erantzuteko, hau da, adingabeak dituzten eta etxerik gabe dauden familien presentziari erantzuteko.

Hirugarrenik, bazterketa-egoeran dauden pertsonekiko eskuhartze sozialaren paradigma berrietara egokitzen da araua. Alde batetik, neurri handi batean jadanik aplikatzen ziren gai batzuk erantsi zaizkio araudiari, eta, horrenbestez, estaldura juridikoa eman zaie, segurtasun juridikoaren eskakizunetara egokituta (adibidez, egoera jakin batzuetan alkohola kontsumitzeko baimenari dagokionez, adingabeak sartzea pertsona heldu arduradun batekin badaude, edo egoera jakin batzuetan etxeko animaliak izatea). Beste alde batetik, aldatu eta garatu egin da zehapen-araubidea, erabiltzaileen benetako egoerara eta haiek gizarteratzeko helburura egokitzeko.

Araudiak hogeita hamar artikulu ditu, sei kapitulutan banatuta, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

I. kapituluak (1. artikulutik 8.era) araudiaren xedea definitzen du, eta Abegi Etxeak ematen dituen zerbitzuak arautzen, hau da, eguneko arreta-zerbitzua, gaueko harrera-zerbitzua eta familientzako harrera-zerbitzua. Era berean, zerbitzu horiek osatzen dituzten prestazioak, kontsigna eta zerbitzuen ordutegia ere arautzen dira kapitulu horretan. II. kapituluak (9. artikulutik 14.era) zerbitzuak eskuratzeko baldintzak eta prozedura ezartzen ditu. Hiru sarbide mota bereizten ditu: zentroan bertan egindako eskari bidez, preskripzio teknikoz eta berehalako urgentziagatik. Bestalde, Bizitoki Batzordearen funtzionamendua aurreikusten du. III. kapituluak (15. eta 16. artikuluak) zerbitzuen iraupena eta azkentzea ezartzen ditu. IV. kapituluak (17. eta 18. artikuluak) erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak arautzen ditu. V. kapituluak (19. artikulutik 28.era) zehapen-araubidea ezartzen du. Azkenik, VI. kapituluak (29. eta 30. artikuluak) erreklamazioak eta errekurtsoak arautzen ditu.

Lehenengo xedapen gehigarriak, araudiaren ondorioetarako, «eraikin erantsia» deritzona Abegi Etxean sartu behar dela ezartzen du. Bigarren xedapen gehigarriak dio Abegi Etxeko instalazioak gaitu behar direla, baldin eta eguraldiaren ondorioz kalean lo egiten duten pertsonak arriskuan egon daitezkeela ikusten bada. Hirugarren xedapen gehigarriak, berriz, genero-ikuspegia txertatzen du araudia interpretatzeko irizpide gisa.

Araua xedapen indargabetzaile batekin eta bi azken xedapenekin osatzen da: lehenengoan, baimena ematen zaio arloko zinegotziari egonaldien gehieneko iraupena aldatzeko, zer eskari dagoen eta erabiltzeko moduan zenbat baliabide dauden kontuan hartuta; bigarrena, berriz, araudi berria indarrean sartzeari buruzkoa da.

Ekimen honek errespetatzen ditu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan aipatzen diren printzipioak, alegia, beharrarena, eraginkortasunarena, proportzionaltasunarena, segurtasun juridikoarena, gardentasunarena eta efizientziarena.

Hain zuzen ere, lehen ere esan dugunez, araudia onesteko arrazoia da erkidegoan indarrean dagoen legeriara eta unean uneko gizarte-errealitatera eguneratu eta egokitu behar dela udal-araudia, hori baita tresna egokiena eta eraginkorrena helburu horiek lortuko direla bermatzeko. Alde horretatik, Abegi

jetivo de adaptarlo a la normativa sectorial vigente. En este sentido, la nueva regulación afecta de forma significativa a la definición del servicio de acogida, el cual, en el reglamento de 2004 se configuraba como una estancia de 24 horas/día, y en la nueva regulación viene a integrarse por dos servicios diferentes: el servicio de acogida nocturna y el servicio de atención diurna.

En segundo lugar, el reglamento viene a regular igualmente el servicio de acogida a familias, el cual, aunque no está específicamente contemplado en la cartera de prestaciones y servicios, viene prestándose por el Ayuntamiento para dar respuesta a una realidad social nueva en nuestro contexto, como es la presencia de familias, con miembros menores de edad, en situación de sinhogar.

En tercer lugar, la norma viene a adaptarse a los nuevos paradigmas de intervención social con personas en situación de exclusión. En este sentido, de un lado, se incorpora al reglamento la regulación de algunas cuestiones que en buena medida ya se venían aplicando, con lo que se les dota de una cobertura jurídica, ajustada a los requerimientos de la seguridad jurídica (por ejemplo, en relación con la autorización del consumo de alcohol en determinadas circunstancias, la entrada de menores cuando estén acompañados de un adulto responsable o la presencia de animales de compañía en ciertas circustancias); y, de otro lado, se modifica y desarrolla el régimen sancionador, con el fin de adaptarlo a la situación real de las personas usuarias y al objetivo de su inserción social.

El reglamento consta de treinta artículos, divididos en seis capítulos, tres disposiciones adicionales, una derogatoria y dos finales.

El capítulo I (artículos 1 a 8) define el objeto del reglamento y regula los servicios que presta el Centro Municipal de Acogida Social, esto es, el servicio de atención diurna, el servicio de acogida nocturna y el servicio de acogida a familias. Igualmente, en este capítulo se regulan las prestaciones que integran estos servicios, la consigna y el horario de los servicios. El capítulo II (artículos 9 a 14) establece los requisitos y el procedimiento de acceso a los servicios, distinguiendo tres formas de acceso: por demanda en el propio Centro, por prescripción técnica y por urgencia inmediata, y prevé el funcionamiento de la denominada Comisión Técnica de Alojamientos-Bizitoki Batzordea. El capítulo III (artículos 15 y 16) establece la duración y la extinción de los servicios. El capítulo IV (artículos 17 y 18) regula los derechos y deberes de las personas usuarias. El capítulo V (artículos 19 a 28) establece el régimen sancionador. Finalmente, el capítulo VI (artículos 29 y 30) regula las reclamaciones y recursos.

La Disposición Adicional Primera establece la integración del llamado «edificio anexo» en el Centro Municipal de Acogida Social, a los efectos del reglamento; la Disposición Adicional Segunda prevé la habilitación de las instalaciones del Centro cuando se aprecie riesgo para las personas que pernoctan en la calle, derivado de circunstancias metereológicas; y la Disposición Adicional Tercera incorpora la perspectiva de género como criterio interpretativo del reglamento.

La norma se completa con una Disposición Derogatoria y dos disposiciones finales, la Primera, que autoriza a la persona titular de la Concejalía correspondiente para modificar la duración máxima de las estancias, en atención a la demanda y a la disponibilidad de medios; y la Segunda, sobre la entrada en vigor del nuevo reglamento.

La presente iniciativa respeta los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia a los que se refiere el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En efecto, la aprobación del reglamento se fundamenta, como ya se ha señalado, en la necesidad de actualizar y adaptar la normativa municipal a la vigente legislación autonómica y a la realidad social del momento; es el instrumento más adecuado y eficaz para garantizar la consecución de dichos objeti-

Etxeak ematen dituen zerbitzuak definitzen ditu, horien helburuak finkatzen ditu, erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak arautzen ditu, eta prestazioak eskuratzeko, eteteko eta azkentzeko baldintzak eta prozedura arautzen ditu.

Gardentasunaren printzipioari dagokionez, egin da aurretiko kontsulta publikoaren izapidea, herritarrek araudia prestatzen benetan parte hartuko dutela bermatzeko, bai eta jendaurreko informazioaren eta entzunaldiaren izapideak ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluarekin bat.

Azkenik, araudia koherentea da efizientziaren printzipioarekin; izan ere, ez du ezartzen beharrezko ez den administraziozamarik, eta ahalik eta gehien sinplifikatzen eta arintzen du administrazio-prozedura.

- Aurkibidea:
- I. kapitulua. Araudiaren xedea. Zerbitzuak eta prestazioak.
- 1. artikulua. Xedea.
- 2. artikulua. Abegi Etxearen zerbitzuak.
- 3. artikulua. Eguneko arreta-zerbitzuaren definizioa eta helburuak.
- 4. artikulua. Gaueko harrera-zerbitzuaren definizioa eta helburuak.
- 5. artikulua. Familientzako harrera-zerbitzuaren definizioa eta helburuak.
 - 6. artikulua. Zerbitzuak ematea.
 - 7. artikulua. Kontsigna.
 - 8. artikulua. Zerbitzuen ordutegia.
- II. kapitulua. Zerbitzuak eskuratzeko baldintzak eta prozedura.
 - 9. artikulua. Zerbitzuak eskuratzeko baldintzak.
- 10. artikulua. Abegi Etxearen zerbitzuak eskuratzeko prozedura.
- 11. artikulua. Abegi Etxean bertan egindako eskaera bidez sartzea.
 - 12. artikulua. Preskripzio teknikoz sartzea.
 - 13. artikulua. Berehalako urgentziagatik sartzea.
 - 14. artikulua. Bizitoki Batzordea.
 - 15. artikulua. Zerbitzuen iraupena.
 - 16. artikulua. Zerbitzuaren prestazioa.
 - III. kapitulua Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.
 - 17. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.
 - 18. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.
 - IV. kapitulua. Zehapen-araubidea.
 - 19. artikulua. Zehatzeko ahala.
 - 20. artikulua. Zehapen-prozedura.
 - 21. artikulua. Arau-hausteak.
 - 22. artikulua. Arau-hauste arinak.
 - 23. artikulua. Arau-hauste larriak.
 - 24. artikulua. Arau-hauste oso larriak.
 - 25. artikulua. Berrerortzea.
 - 26. artikulua. Zehapenak.
 - 27. artikulua. Zehapenak mailakatzea.
- 28. artikulua. Zerbitzuen ordena eta funtzionamendua berrezartzeko neurriak.
 - V. kapitulua. Erreklamazioak eta errekurtsoak.

vos; con tal finalidad, define los servicios que presta el Centro Municipal de Acogida Social, fija sus objetivos y regula los derechos y deberes de las personas usuarias, los requisitos y el procedimiento de acceso y la suspensión y extinción de las prestaciones, dotando de la necesaria seguridad jurídica a la materia.

Por lo que respecta al principio de transparencia, se ha practicado el trámite de consulta pública previa para garantizar la efectiva participación ciudadana en la elaboración del reglamento; y se han sustanciado los trámites de información pública y audiencia regulados en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Finalmente, el reglamento es coherente con el principio de eficiencia, en la medida en que no establece cargas administrativas innecesarias y simplifica y agiliza al máximo el procedimiento administrativo.

- Índice:
- Capítulo I. Objeto del reglamento. Servicios y prestaciones.
- Artículo 1. Objeto.
- Artículo 2. Servicios del Centro Municipal de Acogida Social.
- Artículo 3. Definición y objetivos del servicio de atención diurna.
- Artículo 4. Definición y objetivos del servicio de acogida nocturna.
- Artículo 5. Definición y objetivos del servicio de acogida a familias.
 - Artículo 6. Prestaciones de los servicios.
 - Artículo 7. La consigna.
 - Artículo 8. Horario de los servicios.
- Capítulo II. Requisitos y procedimiento de acceso a los servicios.
 - Artículo 9. Requisitos de acceso a los servicios.
- Artículo 10. Procedimiento de acceso a los servicios del Centro Municipal de Acogida Social.
 - Artículo 11. Acceso por demanda en el propio Centro.
 - Artículo 12. Acceso por prescripción técnica.
 - Artículo 13. Acceso por urgencia inmediata.
- Artículo 14. Comisión Técnica de Alojamientos-Bizitoki Batzordea.
 - Artículo 15. Duración de los servicios.
 - Artículo 16. Extinción del servicio.
 - Capítulo III. Derechos y deberes de las personas usuarias.
 - Artículo 17. Derechos de las personas usuarias.
 - Artículo 18. Deberes de las personas usuarias.
 - Capítulo IV. Régimen sancionador.
 - Artículo 19. Potestad sancionadora.
 - Artículo 20. Procedimiento sancionador.
 - Artículo 21. Infracciones.
 - Artículo 22. Infracciones leves.
 - Artículo 23. Infracciones graves.
 - Artículo 24. Infracciones muy graves.
 - Artículo 25. Reincidencia.
 - Artículo 26. Sanciones.
 - Artículo 27. Graduación de las sanciones.
- Artículo 28. Medidas para restablecer el orden y el funcionamiento de los servicios.
 - Capítulo V. Reclamaciones y recursos.

www.gipuzkoa.eus 3 LG.:S.S.1-1958

29. artikulua. Erreklamazioak.30. artikulua. Errekurtsoak.

I. KAPITULUA

ARAUDIAREN XEDEA. ZERBITZUAK ETA PRESTAZIOAK

1. artikulua. Xedea.

Araudi honen xedea da Abegi Etxeak ematen dituen zerbitzuak arautzea.

- 2. artikulua. Abegi Etxearen zerbitzuak.
- 1. Abegi Etxea Donostiako Udalaren ekipamendu bat da, gizartean baztertuta dauden pertsonei aldi baterako, urgentziazko edo berehalako eta laguntza-intentsitate txikiko harrera-zerbitzuak emateko erabiltzen dena.
- 2. Abegi Etxeak aldi baterako harrera-zerbitzu hauek emango ditu:
- a) Helduentzako zerbitzuak: eguneko arreta-zerbitzua eta gaueko harrera-zerbitzua.
 - b) Familientzako harrera-zerbitzua.
- 3. artikulua. Eguneko arreta-zerbitzuaren definizioa eta helburuak.

Eguneko arreta-zerbitzuak egunez nora jo izateko baliabide bat jartzen du erabiltzaileen eskura, helburu hauekin:

- a) Oinarrizko premiak asetzea, egunean zehar babesteko, garbitzeko eta jateko toki bat eskainiz.
- b) Erabiltzaileei beren eskubideen eta eskura ditzaketen gizarte-baliabideen berri ematea, bai eta beren egoera normalizatzeko gestioak egiteko orientazioa ematea ere.
- 4. artikulua. Gaueko harrera-zerbitzuaren definizioa eta helburuak.

Gaueko harrera-zerbitzua erabiltzaileei gaua pasatzen uzteko baliabide bat da, eta gaua igarotzeko, mantenurako eta higiene pertsonalerako oinarrizko prestazioak eskaintzen ditu, berehala

- 5. artikulua. Familientzako harrera-zerbitzuaren definizioa eta helburuak.
- 1. Familientzako harrera-zerbitzuak baliabide bat eskaintzen die bertan ostatu hartzeko, familiako kideen oinarrizko premiei erantzuteko eta bazterketa-egoerari aurre egiteko informazioa eta orientazioa jasotzeko.
- 2. Araudi honen ondorioetarako, gutxienez adinez nagusi den pertsona batek eta adingabe batek osatutako bizikidetzaunitatea da familia.
- 3. Familientzako harrera-zerbitzua, ahal dela, helduentzako zerbitzuetatik bereizita dagoen espazio batean emango da.
 - 6. artikulua. Zerbitzuak ematea.

Eguneko arreta-zerbitzuak, gaueko harrera-zerbitzuak eta familientzako harrera-zerbitzuak prestazio hauek eskainiko dituzte:

- a) Gizarte Zerbitzuen Sistemak berezko dituen prestazioak:
- 1. Informazioa.
- 2. Eguneko arreta-Zerbitzuan, bitartekaritza.
- 3. Gaueko harrera-Zerbitzuan eta familientzako arreta-Zerbitzuan, beharren hasierako balorazioa, hala badagokio, eta jarraipenaren balorazioa.
- 4. Esku-hartze psikosoziala (entzute aktiboa eta emozioei eustea).

Artículo 29. Reclamaciones.

Artículo 30. Recursos.

CAPÍTULO I

OBJETO DEL REGLAMENTO. SERVICIOS Y PRESTACIONES

Artículo 1. Objeto.

El presente reglamento tiene por objeto regular los servicios que presta el Centro Municipal de Acogida Social.

Artículo 2. Servicios del Centro Municipal de Acogida Social.

- El Centro Municipal de Acogida Social es un equipamiento del Ayuntamiento de San Sebastián, destinado a procurar servicios de acogida temporal, de carácter urgente o inmediato, y de baja intensidad de apoyo, a personas en situación de exclusión social.
- 2. El Centro prestará los siguientes servicios de acogida temporal:
- a) Servicios destinados a personas adultas: servicio de atención diurna y servicio de acogida nocturna.
 - b) Servicio de acogida a familias.

Artículo 3. Definición y objetivos del servicio de atención diurna

El servicio de atención diurna pone a disposición de las personas usuarias un recurso al que acudir durante el día, con los siguientes objetivos:

- a) Cubrir sus necesidades básicas, ofreciéndoles un dispositivo en el que resguardarse, asearse y comer durante el día.
- b) Informarles sobre los derechos que les asisten y los recursos sociales a los que pueden acceder, así como orientarles en la realización de gestiones tendentes a normalizar su situación.

Artículo 4. Definición y objetivos del servicio de acogida nocturna.

El servicio de acogida nocturna es un dispositivo que ofrece a las personas usuarias un recurso en el que pasar la noche y, con carácter inmediato, prestaciones básicas de pernocta, manutención e higiene personal.

Artículo 5. Definición y objetivos del servicio de acogida a familias.

- 1. El servicio de acogida a familias ofrece un recurso en el que alojarse, atender las necesidades primarias de sus miembros y recibir información y orientación sobre cómo abordar su situación de exclusión.
- 2. A efectos de este reglamento se considera familia la unidad convivencial formada por, al menos, una persona mayor de edad con una persona menor.
- 3. El servicio de acogida a familias se prestará preferentemente en un espacio diferenciado del destinado a los servicios para personas adultas.

Artículo 6. Prestaciones de los servicios.

Los servicios de atención diurna, de acogida nocturna y de acogida a familias ofrecerán las siguientes prestaciones:

- a) Prestaciones propias del Sistema de Servicios Sociales:
- 1. Información.
- 2. En el servicio de atención diurna, mediación-intermediación.
- 3. En el servicio de acogida nocturna y en servicio de atención a familias, valoración inicial de necesidades, en su caso, y valoración de seguimiento.
- 4. Intervención psicosocial (escucha activa y contención emocional).

www.gipuzkoa.eus 4 LG.:S.S.1-1958

- b) Prestazio osagarriak:
- 1. Gaueko harrera-Zerbitzuan eta familientzako arreta-Zerbitzuan, gaua igarotzea.
 - 2. Mantenua.
 - 3. Higiene pertsonala.
 - 4. Ikuztegia.
 - 5. Urgentziazko oinarrizko arropa.
- 6. Medikazioa, beharrezkoa dela egiaztatzen bada, errezeta edo txosten medikoa aurkeztuta.
- 7. Familiei arreta emateko Zerbitzuan, adingabeen eskolatze-prozesuan lagun egitea eta horri buruzko aholkuak ematea.
 - 7. artikulua. Kontsigna.
- 1. Gaueko harrera-zerbitzuaren erabiltzaileek kontsignan gorde beharko dute ekipajea, bertan diren bitartean, eta egonaldian erabilera pertsonaleko tresnak besterik ezingo dute eraman logelara.
- 2. Erabiltzaileek zerbitzua uztean kontsignan utzitako objektuak eraman ez badituzte, astebetez gordeko zaizkie. Epe hori igarotakoan, ahal bada, telefonoz jakinaraziko zaie 24 orduko epean eraman behar dituztela gauzak. Eraman ezean, abandonatutzat joko dira, eta Abegi Etxeak egokitzat jotzen duen moduan erabili ahal izango ditu.
- 3. Erabiltzaile bat aste horretan ekipajearen bila joaten bada, dena eraman beharko du berekin, hau da, ezingo du parte bat jaso eta beste bat aurrerago jasotzeko utzi.
- 4. Udala ez da egingo kontsignan utzi ez diren objektuen edo jantzien erantzule.
 - 8. artikulua. Zerbitzuen ordutegia.
- 1. Abegi Etxeak urte osoan emango du zerbitzua, modu iraunkorrean.
- 2. Familientzako harrera-zerbitzua egunean 24 orduz emango da.
- 3. Eguneko arretarako eta gaueko harrerarako zerbitzuen ordutegia Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak zehaztuko du, eta udalaren webgunean argitaratuko da. Era berean, Abegi etxeko sarreran jarriko da eta erabiltzaileei ere banatuko zaie informazio hori, araudi honen laburpenarekin batera.
- 4. Baimendu ahal izango da gaueko harrera-zerbitzua eta eguneko arreta-zerbitzua aldi berean erabiltzea.

II. KAPITULUA

ZERBITZUAK ESKURATZEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA

- 9. artikulua. Zerbitzuak eskuratzeko baldintzak.
- 1. Abegi Etxearen erabiltzaile izan ahalko dira bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonak, betiere hurrengo ataletan arautzen diren baldintzak betetzen badituzte.
- 2. Araudi honen ondorioetarako, bizitegi-bazterketako egoeran egongo dira etxerik ez duten pertsonak edo, etxea izanik ere, hura erabili ezin dutenak edo segurtasunagatik edo haien eskubideak bermatzeagatik hura ez erabiltzeko gomendioa egin zaienak.
- 3. Harrera-zerbitzuak eskuratzeko, baldintza hauek bete behar dira:
 - a) Adinduna edo adingabe emantzipatua izatea.

- b) Prestaciones complementarias:
- 1. En el servicio de acogida nocturna y en el servicio de atención a familias, pernocta.
 - Manutención.
 - 3. Higiene personal.
 - 4. Lavandería.
 - 5. Ropa básica de urgencia.
- 6. Medicación, cuando se acredite la necesidad, mediante la presentación de las correspondientes recetas y/o informes médicos.
- 7. En el servicio de atención a familias, acompañamiento y asesoramiento en relación con el proceso de escolarización de quienes sean menores de edad.

Artículo 7. La consigna.

- 1. Las personas usuarias del servicio de acogida nocturna deberán guardar en la consigna sus equipajes durante su permanencia en el mismo, no pudiendo llevar a las habitaciones más que los enseres de uso personal necesarios durante su estancia
- 2. Si, al abandonar el servicio, no se retiraran los objetos entregados en consigna, estos serán guardados durante una semana. Transcurrido este plazo, se informará por teléfono a la persona usuaria, siempre que sea posible, del deber de retirar sus pertenencias en un plazo de 24 horas. En el caso de no hacerlo, los objetos se considerarán abandonados, pudiendo el Centro disponer de ellos en la forma que estime oportuna.
- 3. En caso de que una persona usuaria acuda a buscar su equipaje durante esta semana, deberá llevárselo en su totalidad, sin poder recoger una parte y dejar otra para recogerla más adelante.
- 4. El Ayuntamiento no será responsable de aquellos objetos o prendas que no hayan sido entregados en consigna.

Artículo 8. Horario de los servicios.

- 1. El Centro prestará sus servicios todo el año, con carácter permanente.
- 2. El servicio de acogida a familias se prestará durante 24 horas al día.
- 3. El horario de los servicios de atención diurna y de acogida nocturna, que será fijado por la Dirección de Acción Social, se hará público en la página web municipal. Igualmente se anunciará en la entrada del Centro y se facilitará a las personas usuarias, junto con el extracto del presente reglamento.
- 4. Se podrá autorizar el uso simultáneo de los servicios de acogida nocturna y atención diurna.

CAPÍTULO II

REQUISITOS Y PROCEDIMIENTO DE ACCESO A LOS SERVICIOS

Artículo 9. Requisitos de acceso a los servicios.

- 1. Podrán ser usuarias del Centro Municipal de Acogida Social las personas que se encuentren en situación de exclusión residencial, siempre que cumplan los requisitos que se regulan en los siguientes apartados.
- 2. A los efectos de este reglamento, se entiende que están en situación de exclusión residencial las personas que carezcan de hogar o que, teniéndolo, no puedan utilizarlo o no se recomiende su uso por motivos de seguridad o garantía de sus derechos.
- 3. Para acceder a los servicios de acogida, las personas deberán cumplir los siguientes requisitos:
 - a) Ser mayor de edad o menor emancipado/a.

EK\CV GAO-I-2022-05119

- b) Adingabe emantzipatugabeak Abegi Etxean sartzeko, ezinbestekoa izango da familia bateko kide izatea, araudi honen 5.2 artikuluan ezarritako moduan.
- c) Gaixotasun infekto-kutsakorrik izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzea.
- d) Ez izatea zerbitzuaren funtzionamendua edo bizikidetza normala larri eragozten duen portaerarik, edo norbera edo beste erabiltzaile edo profesional batzuk arriskuan jartzen dituen portaerarik
- e) Ez behar izatea osasun-laguntza espezializatu edo iraunkorrik zerbitzuaren berezko zuzkiduren irismenetik eta aukeretatik kanpo dagoenik.
- f) Hitzematea beteko direla langileek higiene pertsonalari eta zentroaren higieneari buruz emandako jarraibideak.
- g) Ez izatea muga fisiko edo psikikorik eguneroko bizitzako jarduerak egiteko hirugarrenen mende egotea dakarrenik, horretarako behar den laguntza eduki ezean.
- h) Ez egotea zerbitzurako sarbidea eteteko zehapenik betetzen, 26.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- 4. Abegi Etxearen zerbitzuetarako sarbidea une bakoitzean libre dauden plazen mende egongo da.
- 10. artikulua. Abegi Etxearen zerbitzuak eskuratzeko prozedura.
- Abegi Etxearen zerbitzuetara zuzenean sartzen da, eta ez da beharrezkoa eskaera Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez izapidetzea.
 - 2. Zerbitzuak eskuratzeko, hiru modu hauek izango dira:
 - a) Abegi Etxean bertan egindako eskaera bidez.
 - b) Preskripzio teknikoz.
 - c) Berehalako urgentziagatik.
- 3. Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak ezarriko du Abegi Etxera sartzeko sistema bakoitzaren bidez bete beharreko plaza-kupoa, eskariak zer bilakaera duen edo ingurunean beste zerbitzu osagarri batzuk garatu diren kontuan hartuta.
- 11. artikulua. Abegi Etxean bertan egindako eskaera bidez sartzea.
- 1. Plazarik badago, baldintzak betetzen dituen edozein pertsonak baliatu ahal izango ditu eguneko arretako edo gaueko harrerako zerbitzuak, Abegi Etxean bertan eskatzea beste izapiderik egin gabe.
- 2. Familientzako arreta-zerbitzua ezingo da eskuratu Abegi Etxean eskatuta.
 - 12. artikulua. Preskripzio teknikoz sartzea.
- 1. Abegi Etxearen zerbitzuak preskripzio teknikoz eskuratu ahal izango dira. Preskripzio hori Bizitoki Batzordeak (14. artikuluan definitzen da) emango du.
- 2. Horretarako, Batzordeak txostenak eta aurkeztutako bestelako dokumentuak aztertuko ditu, Abegi Etxearen zerbitzuak pertsona horrentzat egoki diren ala ez baloratzeko eta egiaztatutako premia-egoera horri erantzuteko. Dokumentuok egoitza-bazterketako egoeran egon daitekeen pertsona batekin esku hartu duten gizarte-zerbitzuetako, osasun-zerbitzuetako, espetxeetako edo antzekoetako profesionalek ekarriak izan daitezke, bai eta interesdunak berak ekarriak ere.
- 3. Batzordeak preskripzioen lehentasuna ezarri ahal izango du, eragindako pertsonaren kalteberatasunaren eta Abegi Etxearen erantzuteko gaitasunaren arabera.

- b) Las personas menores de edad no emancipadas solo podrán acceder al Centro Municipal de Acogida Social si forman parte de una familia, en los términos del artículo 5.2 de este reglamento.
- c) No rechazar el tratamiento que corresponda, en caso de padecer una enfermedad infecto-contagiosa.
- d) No presentar comportamientos que perturben gravemente el funcionamiento del servicio o la normal convivencia en el mismo o que supongan riesgo para la propia persona, para otras personas usuarias o profesionales.
- e) No precisar una asistencia sanitaria especializada y/o permanente fuera del alcance y posibilidades de las dotaciones propias del servicio.
- f) Comprometerse a cumplir las indicaciones el personal en relación con la higiene personal y con la higiene del propio Centro.
- g) No padecer limitaciones físicas o psíquicas que le hagan dependiente de terceros para la realización las actividades de la vida diaria, salvo que se cuente con los apoyos necesarios para ello.
- h) No estar cumpliendo sanción de suspensión de acceso al servicio, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 26.4.
- El acceso a los servicios del Centro Municipal de Acogida Social estará condicionado a la existencia de plazas disponibles en cada momento.
- Artículo 10. Procedimiento de acceso a los servicios del Centro Municipal de Acogida Social.
- 1. Los servicios del Centro Municipal de Acogida Social son de acceso directo, sin que sea necesario tramitar la solicitud a través de los Servicios Sociales de Base.
- 2. El acceso a los servicios podrá realizarse por alguna de las tres siguientes modalidades:
 - a) Acceso por demanda en el propio Centro.
 - b) Acceso por prescripción técnica.
 - c) Acceso por urgencia inmediata.
- 3. La Dirección del área de Acción Social establecerá cupos de plazas a cubrir por cada uno de los sistemas de acceso al Centro, en función de la evolución de la demanda o el desarrollo de otros servicios complementarios en el entorno.
 - Artículo 11. Acceso por demanda en el propio Centro.
- 1. En caso de que haya disponibilidad de plazas, cualquier persona que cumpla los requisitos podrá acceder a los servicios de atención diurna y/o acogida nocturna, sin más trámite que su demanda en el propio Centro.
- 2. No se podrá acceder por demanda en el propio Centro al servicio de atención a familias.
 - Artículo 12. Acceso por prescripción técnica.
- 1. Podrá accederse a los Servicios del Centro Municipal de Acogida por prescripción técnica, que emitirá la Comisión Técnica de Alojamientos-Bizitoki Batzordea, que se define en el artículo 14.
- 2. A estos efectos, la Comisión analizará los informes y otros documentos aportados, bien por las personas profesionales de los servicios sociales, sanitarios, penitenciarios o semejantes, que intervengan en relación con una persona que pueda encontrarse en situación de exclusión residencial, bien por la propia persona interesada, a fin de valorar la idoneidad del servicio del Centro Municipal de Acogida Social y responder a la situación de necesidad que se haya acreditado.
- 3. La Comisión podrá establecer la prioridad de las prescripciones, en función de la vulnerabilidad de la persona afectada y la capacidad de respuesta del Centro Municipal de Acogida Social.

- 13. artikulua. Berehalako urgentziagatik sartzea.
- 1. Pertsona baten osotasuna arriskuan badago, eguraldia, indarkeria-arriskua, osasunerako arriskua edo antzeko beste arrazoi batzuk direla medio, eta horren ondorioz Udaltzaingoak, suhiltzaileek edo beste larrialdi-zerbitzu batzuek esku hartu badute, pertsona hori ere sar daiteke Abegi Etxean.
- 2. Zerbitzua eskuratu ondoren, Bizitoki Batzordeari jakinaraziko zaio, hala badagokio, dagokion preskripzio teknikoa eman dezan hark, zerbitzua prozedura horren bidez eskuratzeko modua izateko.
 - 14. artikulua. Bizitoki Batzordea.
- 1. Bizitoki Batzordea Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzaren barruan bilduko da, eta lanpostu hauek betetzen dituzten pertsonek osatuko dute:
- a) Gizarteratze Zerbitzuaren burua: idazkari-lanak egingo ditu.
 - b) Etxegabeen eta Gizarte Larrialdien Arretaren arduraduna.
 - c) Gizarteratzeko Bizitoki Baliabideen arduraduna.
- 2. Era berean, Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuaren koordinatzaileak ere parte hartuko du batzorde horretan.
- 3. Gizarte Ekintzako Zuzendaritzak Ostatuen Batzorde Teknikoari eskatu ahal izango dio beharrezkotzat jotzen dituen txostenak egin ditzala, Gizarte Ekintzako Kontseiluari helaraz diezazkion, Abegi Etxearen erabilerei eta jarduerari buruz (erabiltzaileen datu pertsonalak jasoz).
 - 15. artikulua. Zerbitzuen iraupena.
- 1. Eguneko arreta-zerbitzuak ez du izango gehieneko denborarik.
- 2. Gaueko harrera-zerbitzuak mugatua izango du gehieneko iraupena, sartzeko prozeduraren arabera, modu honetara:
- a) Abegi Etxean bertan eskatuta sartuz gero, zerbitzuaren gehieneko iraupena bost egunekoa izango da. Kasu horretan, gainera, ezin izango da zerbitzua berriz eskatu zentrotik irten eta hiru hilabete igaro arte.
- b) Preskripzio teknikoz sartuz gero, gehieneko iraupena astebetekoa izango da, eta epe hori luzatu ahal izango da, preskripzio teknikoan ezarritako helburuen arabera; edonola ere, baliabideak aldi baterako izaten jarraituko du.
- c) Berehalako urgentziagatik sartuz gero, gehieneko iraupena astebetekoa izango da. Hala badagokio, zerbitzua luzatu ahal izango da, preskripzio tekniko bidez, 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- 3. Gaueko harrera-Zerbitzuan, iraupena ere luzatu ahal izango da, bazterketa baloratu arte, bidezkoa denean eta bigarren mailako baliabideak eskuratzen direnean.
- 4. Familiei laguntzeko zerbitzuak iraupen mugatua izango du, zerbitzua eskuratzeko prozeduraren arabera, honako baldintza hauetan:
- a) Preskripzio teknikoaren bidez sartzen denean, gehieneko iraupena astebetekoa izango da; epe hori luzatu ahal izango da, preskripzio teknikoan ezarritako helburuen arabera, baina baliabidearen aldi baterako izaera galdu gabe.
- b) Berehalako urgentziagatik sartuz gero, gehieneko iraupena astebetekoa izango da. Hala badagokio, zerbitzua luzatu ahal izango da, preskripzio tekniakoaren bidez sartuz gero, 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Artículo 13. Acceso por urgencia inmediata.

- 1. Se podrá acceder al Centro Municipal de Acogida como consecuencia de una intervención de la Guardia Municipal, del servicio de Bomberos o de otros servicios de urgencia, ante situaciones en las que esté comprometida la integridad de una persona, debido a circunstancias meteorológicas, riesgo de violencia o peligro para su salud u otros motivos análogos.
- 2. Una vez producido el acceso al servicio, se comunicará a la Comisión Técnica de Alojamientos-Bizitoki Batzordea, a los efectos de que, en su caso, pueda emitir la correspondiente prescripción técnica, que permita acceder al servicio a través de este procedimiento.

Artículo 14. Comisión Técnica de Alojamientos - Bizitoki Batzordea.

- 1. En el seno de la Dirección de Acción Social del Ayuntamiento de San Sebastián, se reunirá una Comisión Técnica de Alojamientos Bizitoki Batzordea, compuesta por las personas que ocupen los siguientes puestos:
- a) Jefatura del Servicio de Inserción Social, que desarrollará funciones de secretaría.
- b) Responsable de Atención a Personas Sin Hogar y Urgencias Sociales.
- c) Responsable de Recursos de Alojamiento de Inserción Social.
- 2. Así mismo, participará en dicha comisión la persona Coordinadora del Servicio Municipal de Urgencias Sociales.
- 3. La Dirección de Acción Social podrá solicitar a la Comisión Técnica de Alojamientos la elaboración de los informes que se consideren necesarios para que sean trasladados al Consejo de Acción Social sobre los usos y la actividad del Centro Municipal de Acogida Social (obviando datos personales de las personas usuarias).

Artículo 15. Duración de los servicios.

- 1. El servicio de atención diurna no tendrá un tiempo máximo establecido.
- 2. El servicio de acogida nocturna tendrá una duración máxima limitada, en función del procedimiento de acceso, en los siguientes términos:
- a) Cuando se acceda por demanda en el propio Centro, la duración máxima del servicio será de cinco días. En este caso, además, no podrá volver a solicitarse el servicio hasta que transcurran tres meses desde la salida del Centro.
- b) Cuando se acceda por prescripción técnica, la duración máxima será de una semana, prorrogable, en función de los objetivos establecidos en la prescripción técnica, aunque sin perder el carácter temporal del recurso.
- c) Cuando se acceda por urgencia inmediata, la duración máxima será de una semana. En su caso, el servicio podrá prorrogarse si se accede a través de la correspondiente prescripción técnica, de conformidad con lo dispuesto por el artículo 13.2.
- 3. En el servicio de acogida nocturna, la duración podrá prorrogare igualmente hasta la valoración de la exclusión, cuando proceda y se acceda a los recursos secundarios.
- 4. El servicio de atención a familias tendrá una duración limitada, en función del procedimiento de acceso, en los siguientes téminos:
- a) Cuando se acceda por prescripción técnica, la duración máxima será de una semana, prorrogable, en función de los objetivos establecidos en la prescripción técnica, aunque sin perder el carácter temporal del recurso.
- b) Cuando se acceda por urgencia inemdiata, la duración máxima será de una semana. En su caso, el servicio podrá prorrogarse si se accede a través de la correspondiente prescripción técnica, de conformidad con lo dispuesto por el artículos 13.2.

16. artikulua. Zerbitzua azkentzea.

Zerbitzua azkentzeko zio izango da:

- 1. Zerbitzuaren gehieneko epea edo, hala badagokio, luzapenak amaitzea, preskripzio teknikoaren arabera.
 - 2. Sartzeko baldintzak gerora ez betetzea.
 - 3. Erabiltzaileak bere borondatez uztea zerbitzua.
 - 4. Zerbitzua azkentzea dakarren zehapen bat aplikatzea.
- Zerbitzua behin eta berriz ez erabiltzea, justifikaziorik gabe.

III. KAPITULUA

ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

17. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan eta hura garatzeko araudian ezarritakoaren esparruan, Abegi Etxearen erabiltzaileek honako eskubide hauek dituzte:

- 1. Abegi Etxearen barne-funtzionamenduko arauei buruzko informazio zehatza jasotzea, baita araudi honen laburpen bat ere, zentrora iristen direnean.
- 2. Haien sinesmen zibiko, politiko, moral eta erlijiosoak errespetatzea, bai eta haien orientazio sexuala eta genero-identitatea ere.
- 3. Abegi Etxeko gelak eta zerbitzuak ezarritako orduetan eta baldintzetan erabiltzea.
- 4. Onarpen- eta bizitoki-baldintzak mantentzea. Nolanahi ere, araudi honetan erabiltzaile-izaera galtzeari buruz ezarrita-koa aplikatuko da.
- 5. Dituzten beharrei aurre egiteko zer baliabide eta prestazio dauden jakiteko informazioa eta aholkularitza jasotzea.
- 6. Bidezko iritzitako kexak eta iradokizunak azaltzea. Horretarako, erreklamazio-liburu bat egongo da erabiltzaileen eskura.
- 7. Abegi Etxeko profesionalei emann dizkieten datu pertsonalak isilpean gordetzea.
 - 8. Langileen aldetik tratu egokia jasotzea.
- 9. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzea.
 - 18. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan eta hura garatzeko araudian ezarritakoaren esparruan, Abegi Etxearen erabiltzaileek honako betebehar hauek dituzte:

- 1. Instalazioak behar bezala erabiltzea.
- 2. Tratu zuzena eta errespetuzkoa ematea Abegi Etxeko gainerako erabiltzaileei eta profesionalei, haien eskubideekin bat; bereziki, haien uste zibikoak, politikoak, moralak eta erlijiosoak errespetatzea, bai eta sexu-orientazioa eta genero-identitatea ere.
- 3. Higiene- eta garbitasun-arauak gordetzea, bai pertsonalak, bai Abegi Etxeko geletakoak.
- 4. Medikamentuak hartzeari, posologiari eta gainerako zainketei buruzko mediku-indikazioak betetzea, gaixotasuna infekzioso-kutsakorren bat badute edo Zerbitzuan arrazoi horrexegatik onartu badituzte.
 - 5. Abegi Etxean dauden pertsonak ez mehatxatzea.

Artículo 16. Extinción del servicio.

Son causas de extinción del servicio:

- 1. La finalización del período máximo del servicio o, en su caso, de sus prórrogas, conforme a la prescripción técnica.
- 2. El incumplimiento sobrevenido de los requisitos de acceso.
 - 3. La baja voluntaria de la persona usuaria.
- 4. La aplicación de sanción que implique la extinción del servicio.
- No hacer uso del servicio de forma reiterada e injustificada.

CAPÍTULO III

DERECHOS Y DEBERES DE LAS PERSONAS USUARIAS

Artículo 17. Derechos de las personas usuarias.

En el marco de lo establecido por el artículo 9 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, y su normativa de desarrollo, las personas usuarias del Centro Municipal de Acogida Social tienen los siguientes derechos:

- 1. Recibir la información precisa sobre las normas de funcionamiento interno del Centro, así como un extracto del presente reglamento, cuando lleguen al Centro.
- El respeto a sus convicciones cívicas, políticas, morales y religiosas así como a su orientación sexual e identidad de género.
- 3. El uso de las dependencias y servicios del Centro en las horas y condiciones que se establezcan.
- 4. El mantenimiento de las condiciones de admisión y alojamiento, sin perjuicio de lo establecido respecto a la pérdida de condición de persona usuaria en el presente reglamento.
- 5. Recibir información y asesoramiento sobre los recursos y prestaciones existentes para afrontar sus necesidades.
- 6. Exponer cuantas quejas y sugerencias entiendan oportunas. A estos efectos, existirá un libro de reclamaciones a disposición de las personas usuarias.
- 7. La confidencialidad respecto a los datos de carácter personal que faciliten a cualquiera de los y las profesionales del Centro.
 - 8. Recibir un trato adecuado por parte del personal.
- 9. Utilizar cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 18. Deberes de las personas usuarias.

De conformidad con lo establecido en el artículo 10 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales y su normativa de desarrollo, las personas usuarias del Centro Municipal de Acogida Social, deberán cumplir los siguientes deberes:

- 1. Hacer un uso adecuado de las instalaciones.
- 2. Dispensar un trato correcto y respetuoso con los derechos de las demás personas usuarias y profesionales del Centro; en especial, respetar sus convicciones cívicas, políticas, morales y religiosas, así como su orientación sexual e identidad de género.
- 3. Guardar las normas de higiene y aseo, tanto personales como de las dependencias del Centro.
- 4. Cumplir las indicaciones médicas respecto a toma de medicamentos, posología y demás cuidados necesarios, en caso de enfermedad cuando esta sea infecto-contagiosa o su existencia haya sido causa de la admisión en el servicio.
- 5. Abstenerse de amenazar a las personas que se encuentren en el Centro.

CV GAO-I-2022

- 6. Abegi Etxean dauden pertsonen aurka indarkeria fisiko, sexual edo bestelakorik ez erabiltzea.
- 7. 9. artikuluan aurreikusitako sarbide-baldintzak betetzen dituztela jakiteko behar den informazio guztia ematea Abegi Etxeko langileei.
- 8. Abegi Etxearen esparruan alkoholik edo bestelako drogarik ez kontsumitzea edo sartzea, zentroko teknikariek, erabiltzailearen mendekotasun-egoera aintzat hartuta berariaz baimentzen dutenean izan ezik.
- 9. Ez erretzea Abegi Etxearen esparruan, horretarako prestatutako guneetan izan ezik.
- 10. Animaliarik ez sartzea Abegi Etxearen esparruan, zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.
- 11. Ez sartzea eta ez biltegiratzea material antihigieniko edo arriskutsurik. Berariaz debekatzen da armak edukitzea. Ibilgailu motordunik ere ezin da sartu.
- 12. Ohetik jaikitzeko, otorduetarako, kontsignarako eta abarretarako ezarritako ordutegiak betetzea.
- 13. Langile teknikoek esandako elkarrizketetara joatea, bai eta Abegi Etxean lan egiten duten langile guztien argibideak une oro betetzea ere.

IV. KAPITULUA

ZEHAPEN-ARAUBIDEA

19. artikulua. Zehatzeko ahala.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 42.10 artikuluan xedatutakoaren arabera, Donostiako Udalaren eskumena da araudi honen xede diren zerbitzuak ikuskatzea eta zehatzeko ahalaz baliatzea.

20. artikulua. Zehapen-prozedura.

Zehapen-prozedura izapidetzeko, lege hauek hartuko dira kontuan: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

21. artikulua. Arau-hausteak.

Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, babestu beharreko ondasun juridikoek zer garrantzi duten eta izandako jokabideek zer lesio edo lesio-arrisku eragin duten kontuan hartuta.

22. artikulua. Arau-hauste arinak.

Hauek dira arau-hauste arinak:

- Abegi Etxeko profesionalen programa eta orientabideak ez jarraitzea, horrela esku-hartze sozialaren helburua ere hutsaltzen bada.
- 2. Abegi Etxeko langileei, beste erabiltzaile batzuei edo Abegi Etxean daudenei zor zaien begirunea arinki galtzea.
- 3. Instalazioak modu desegokian erabiltzea edo zerbitzuko edo Abegi Etxeko jarduerak nahastea, elkarbizitzarako eta elkarrekiko errespeturako arauak aldatuz eta elkarbizitzari kalte eginez, betiere egitateak arau-hauste larria edo oso larria ez badira.
- 4. Araude honetan jasotako betebeharrak ez betetzea, ezbetetze hori, bere izaeragatik eta larritasunagatik, larritzat edo oso larritzat joa ez badago.

- Abstenerse de ejercer violencia física, sexual o de cualquier otro tipo sobre otras personas que se encuentren en el Centro.
- 7. Aportar al personal del Centro cuanta información sea necesaria para conocer el cumplimiento de los requisitos de acceso previstos por el artículo 9.
- 8. No consumir ni introducir alcohol ni cualquier otro tipo de droga en el recinto del Centro, salvo que sea expresamente autorizado por el personal técnico del Centro, con carácter excepcional, en consideración a la situación de dependencia de la persona usuaria.
- 9. No fumar dentro del recinto del Centro, salvo en las zonas habilitadas para ello.
- 10. No introducir en el recinto del Centro animales sin la autorización expresa de la dirección.
- 11. No introducir ni almacenar materiales en condiciones anti-higiénicas y/o peligrosas. Expresamente, se prohíbe la tenencia de armas. Tampoco se podrán introducir vehículos a motor.
- 12. Cumplir los horarios que se establezcan para levantarse de la cama, comidas, consigna, etc.
- 13. Acudir a las entrevistas para las que sean citadas por el personal técnico, así como colaborar en todo momento con las indicaciones de todo el personal que preste sus servicios en el Centro.

CAPÍTULO IV

RÉGIMEN SANCIONADOR

Artículo 19. Potestad sancionadora.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 42.10 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, es competencia del Ayuntamiento de San Sebastián la inspección y el ejercicio de la potestad sancionadora respecto de los servicios objeto del presente reglamento.

Artículo 20. Procedimiento sancionador.

El procedimiento sancionador se tramitará de conformidad con lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Artículo 21. Infracciones.

Las infracciones se clasifican en leves, graves y muy graves, atendiendo a la importancia de los bienes jurídicos objeto de protección y a la lesión o riesgo de lesión que se derive de las conductas contempladas.

Artículo 22. Infracciones leves.

Tienen el carácter de infracciones leves las siguientes:

- 1. No seguir el programa y las orientaciones del personal profesional del Centro, de forma tal que se desvirtúe la finalidad de la intervención social.
- 2. Faltar levemente a la consideración debida al personal del Centro o a otras personas usuarias o que se encuentren en el Centro.
- 3. Utilizar de forma inadecuada las instalaciones o perturbar las actividades del servicio o del Centro, alterando las normas de convivencia y respeto mutuo y perjudicando la convivencia, siempre que los hechos no constituyan infracción grave o muy grave.
- 4. Incumplir las obligaciones recogidas en el presente reglamento, cuando dicho incumplimiento, por su naturaleza y gravedad, no sea tipificado como grave o muy grave.

23. artikulua. Arau-hauste larriak.

Hauek dira arau-hauste larriak:

- 1. Abegi Etxeko langileei, beste erabiltzaile batzuei edo Abegi Etxean daudenei zor zaien begirunea larri galtzea.
- 2. Abegi Etxeko ondasunetan eta ekipamenduetan kalte larriak eragitea, edo Abegi Etxeko zerbitzuen garapen normalari edo bizikidetzari kalte nabarmenak eragitea.
- 3. Araudi honetan jasotako betebeharrak ez betetzea, ezbetetze hori oso larritzat joa ez badago.
- 4. Arau-hauste arinetan berrerortzea, 25. artikuluan ezarritako moduan.
 - 24. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Hauek dira oso arau-hauste larriak:

- 1. Abegi Etxeko langileei, beste erabiltzaile batzuei edo Abegi Etxean daudenei fisikoki eraso egitea edo tratu txarrak ematea.
- 2. Abegi Etxeko ondasunak, langileenak, erabiltzaileenak edo Abegi Etxean dauden beste pertsona batzuenak lapurtzea.
- 3. Oso kalte larriak eragitea Abegi Etxeko ondasunei eta ekipamenduei edo Abegi Etxeko zerbitzuen garapen normalari edo bizikidetzari.
- 4. Arau-hauste larrietan berrerortzea, 25. artikuluan ezarritako moduan.

25. artikulua. Berrerortzea.

Araudi honen ondorioetarako, berrerortzea egongo da arauhausteen erantzuleek izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin badute bi urtean, eta hala jo bada administrazio-bidean irmoa den ebazpen baten bidez.

26. artikulua. Zehapenak.

- 1. Arau-hauste arinak idatzizko kargu-hartze bidez zehatuko dira.
- 2. Arau-hauste larriak ahozko eta idatzizko kargu-hartze bidez zehatuko dira.
- 3. Arau-hauste oso larriak ahozko eta idatzizko kargu-hartze bidez zehatuko dira.
- 4. Gainera, arau-hauste oso larrien kasuan, jarri ahal izango da zerbitzua edo zerbitzuak eskuratzeko eskubidea gehienez sei hilabetez eteteko zehapena ere. Eteterik ezingo da ezarri, baldin eta horrek babesgabetasun-egoera bat eragin badezake edo mendekotasun-egoeran dagoen pertsona bati arretarik ez ematea ekar badezake.
- 5. Pertsona bat aldi berean eguneko arreta-zerbitzuaren eta gaueko harrera-zerbitzuaren erabiltzaile bada, zerbitzurako sarbidea eteteko zehapena horietako baterako edo bietarako izan daiteke.

27. artikulua. Zehapenak mailakatzea.

Zer zehapen ezarri zehazteko eta, hala badagokio, zehapen horiek zenbat iraungo duten erabakitzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- 1. Eragindako kalte fisikoak, moralak eta materialak.
- 2. Pertsonentzat eta ondasunentzat sortutako edo mantendutako arrisku-egoera.
- 3. Arau-haustea egitean izandako zabarkeria edo intentzionalitate maila.
 - 4. Arau-hausteetan berrerortzea edo behin eta berriz egitea.
 - 5. Arau-haustearen garrantzi ekonomikoa eta soziala.

Artículo 23. Infracciones graves.

Tienen el carácter de infracciones graves las siguientes:

- 1. Faltar gravemente a la consideración debida al personal del Centro o a otras personas usuarias o que se encuentren en el Centro.
- Ocasionar daños graves en los bienes y equipamientos del Centro o perjuicios notorios al normal desarrollo de los servicios o a la convivencia del Centro.
- 3. Incumplir gravemente las obligaciones recogidas en el presente reglamento, cuando dicho incumplimiento no sea muy grave.
- 4. Reincidir en infracciones leves, en los términos establecidos por el artículo 25.

Artículo 24. Infracciones muy graves.

Tienen el carácter de infracciones muy graves las siguientes:

- Agredir físicamente o infligir malos tratos al personal del Centro o a otras personas usuarias o que se encuentren en el Centro.
- 2. Sustraer bienes del Centro, del personal, de las personas usuarias o de otras personas que se encuentren en el Centro.
- 3. Ocasionar daños o perjuicios muy graves en los bienes e instalaciones o en el normal desarrollo de los servicios o en la convivencia del Centro.
- 4. Reincidir en infracciones graves, en los términos establecidos por el artículo 25.

Artículo 25. Reincidencia.

A los efectos del presente reglamento, existirá reincidencia cuando las personas responsables de las infracciones cometieran, en el término de dos años, más de una infracción de la misma naturaleza y así haya sido declarado por resolución firme en vía administrativa.

Artículo 26. Sanciones.

- 1. Las infracciones leves serán sancionadas con amonestación por escrito.
- 2. Las infracciones graves serán sancionadas con amonestación verbal y escrita.
- 3. Las infracciones muy graves serán sancionadas con amonestación verbal y escrita.
- 4. Además, en el caso de las infracciones muy graves, podrá acumularse como sanción la suspensión del derecho de acceso al servicio o servicios durante un periodo máximo de seis meses. La suspensión no podrá imponerse cuando pudiera generar una situación de desprotección o determinar la desatención de una persona en situación de dependencia.
- 5. Cuando una persona sea usuaria de los servicios de atención diurna y de acogida nocturna, simultáneamente, la sanción de suspensión de acceso al servicio podrá referirse a uno de ellos, o a ambos.

Artículo 27. Graduación de las sanciones.

Para la concreción de las sanciones que proceda imponer y, en su caso, establecer su duración, se tendrán en cuanta los siguientes criterios:

- 1. Los perjuicios físicos, morales y materiales causados.
- 2. La situación de riesgo creada o mantenida para personas y bienes.
- 3. El grado de negligencia o intencionalidad en la comisión de la infracción.
- 4. La reincidencia o reiteración en la comisión de las infracciones.
 - 5. La trascendencia económica y social de la infracción.

- 6. Errespetu eta begirune faltagatik edo indarkeria fisiko, sexual edo bestelakoagatik egindako arau-hausteen kasuan, biktimaren kalteberatasuna hartuko da kontuan, eta arreta berezia jarriko da emakumeen eta haurren kasuan.
- 28. artikulua. Zerbitzuen ordena eta funtzionamendua berrezartzeko neurriak.
- 1. Abegi Etxeko langileek zerbitzuen ordena eta funtzionamendua berrezartzeko beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izango dituzte, horietan nahasmenik izan bada. Horrez gain, bidezko diren zehapenak ere jarri ahal izango dira.
- 2. Abegi Etxeko langileen iritziz erabiltzaile baten portaerak arriskuan jartzen badu zentroko langileen, gainerako erabiltzaileen edo zentroan daudenen osotasun fisikoa edo emozionala, hura berehala kanporatzea erabaki ahal izango da.
- 3. Erabiltzaile bat kanporatzeko erabakia arriskuak prebenitzeko irizpideetan oinarrituz hartu behar da, eta horrek ez du esan nahi derrigor hutsegiterik egin denik edo zehapenik jarri behar denik.
- 4. Kanporatzearekin batera, Abegi Etxera sartzeko debekua ezarri ahal izango da, kanporatzeko zio izan diren arrazoiek bere hartan irauten duten bitartean.
- 5. Erabiltzaile bat kanporatu eta hurrengo egun baliodunean, Abegi Etxeko teknikariek erabaki hauetako bat hartu beharko dute: edo erabiltzailea berriz onartu, edo sartzeko debekuari eutsi.
- 6. Azken kasu horretan, zehapen-espedientea ireki beharko da, eta Abegi Etxean sartzeko debekua behin-behineko edo kautelazko neurri gisa hartuko da espediente horretan.

V. KAPITULUA

ERREKLAMAZIOAK ETA ERREKURTSOAK

- 29. artikulua. Erreklamazioak.
- Interesdunek erreklamazioa jarri ahal izango dute Abegi Etxearen zerbitzuak ukatzearen, aldatzearen eta azkentzearen aurka, Abegi Etxean bertan emango den eredu normalizatuaren bidez.
- 2. Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako lekuetan ere jarri ahal izango dira erreklamazioak.
- 3. Gizarte Ekintzako zinegotziak ebatziko ditu erreklamazioak, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzaren erregistro elektronikoan sartu eta hiru hilabeteko epean.
- 4. Administrazioak esanbidez ebazteko betebeharra badu ere, interesdunek administrazio-isiltasunez ezetsitzat jo ditzakete erreklamazioak, ebazpena jakinarazi gabe hiru hilabeteko epea igaro bada.
 - 30. artikulua. Errekurtsoak.
- 1. Aurreko artikuluan aipatutako erreklamazioak ebazten dituen zinegotziaren ebazpenen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dezakete ebazpena eman duen organoan, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.
- 2. Era berean, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete erreklamazioen ebazpenaren aurka, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik aurrera.

- 6. En los supuestos de infracciones por falta de respeto y consideración o ejercicio de violencia física, sexual o de cualquier otro tipo, la vulnerabilidad de la víctima, con especial atención en el caso de mujeres, niñas o niños.
- Artículo 28. Medidas para restablecer el orden y el funcionamiento de los servicios.
- 1. El personal del Centro podrá adoptar las medidas que sean necesarias para restablecer el orden y el funcionamiento de los servicios, cuando estos se vean alterados, sin perjuicio de las sanciones que procedan.
- 2. Cuando, a juicio del personal del Centro, el comportamiento de una persona usuaria ponga en riesgo la integridad física o emocional del personal del Centro, de las demás personas usuarias o que se encuentren en el Centro, podrá acordar su expulsión con carácter inmediato.
- 3. La expulsión de una persona usuaria debe ser acordada con criterios de prevención de riesgos y no supondrá por si misma la existencia de una falta o sanción.
- 4. La expulsión podrá ir acompañada de la prohibición de acceder al Centro mientras se mantengan las circunstancias que la motivaron.
- 5. El primer día hábil siguiente a aquel en que se haya producido la expulsión de una persona usuaria, el personal técnico del Centro deberá acordar, bien su readmisión, bien el mantenimiento de la prohibición de acceso.
- 6. En este último caso, la prohibición de acceso al Centro se adoptará como medida provisional o cautelar en el expediente sancionador que en tal supuesto deberá incoarse.

CAPÍTULO V

RECLAMACIONES Y RECURSOS

Artículo 29. Reclamaciones.

- 1. Contra la denegación, modificación y extinción de los servicios del Centro Municipal de Acogida Social, las personas interesadas podrán formular la correspondiente reclamación, a través del modelo normalizado que se facilitará en el propio Centro.
- 2. Igualmente, las reclamaciones podrán presentarse en los lugares señalados por el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- 3. Las reclamaciones serán resueltas por la persona titular de la Concejalía del área de Acción Social, en el plazo de tres meses desde su entrada en el registro electrónico de la Dirección de Acción Social.
- 4. Sin perjuicio de la obligación de la Administración de resolver expresamente, las personas interesadas podrán entender desestimadas sus reclamaciones por silencio administrativo, cuando trascurra el plazo de tres meses sin haberse notificado la resolución.

Artículo 30. Recursos.

- Contra las resoluciones de la Concejalía resolviendo las reclamaciones a que se refiere el artículo precedente, las personas interesadas podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano que las dictó, en el plazo de un mes desde su notificación.
- 2. Así mismo, podrán interponer directamente recurso contencioso-administrativo contra la resolución de sus reclamaciones, ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde su notificación.

Lehen xedapen gehigarria.

Udalak bere ondasunak zerbitzu publikoen prestazioari atxikitzeko ahala badu ere, araudi hau indarrean sartzen denetik, Abegi Etxearen eranskina haren osagaitzat hartuko da, ondorio guztietarako.

Bigarren xedapen gehigarria.

Abegi Etxeak bere instalazioak prestatu ahal izango ditu gaua kalean ematen duten pertsonak hartzeko, baldin eta eguraldiagatik, egoera soziosanitarioarengatik edo beste arrazoiren batengatik haien osotasun fisikoa arriskuan egon daitekeela ikusiz gero edo beharrezkotzat joz gero.

Hirugarren xedapen gehigarria.

Erregelamendu hau interpretatzean eta Abegi Etxearen funtzionamendurako barne-jarraibideak garatzean, printzipio informatzaile gisa, kontuan hartuko dira genero-ikuspegia, emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera-berdintasuna, eta sexu-dibertsitatea.

Printzipio horiek hartuko dira kontuan zerbitzuak antolatzeko orduan ere, hala nola gaua pasatzeko espazioak, komunak eta aldagelak banatzean.

Era berean, arreta berezia jarriko da indarkeria matxistak eta sexuen arteko desberdintasunarekin eta sexu-dibertsitatearekin lotutako indarkeriak prebenitzeko.

Xedapen indargabetzailea.

Indargabetuta geratzen da 2004ko martxoaren 30eko osoko bilkuraren akordio bidez onetsitako Abegi Etxearen araudia (2004ko uztailaren 22ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 139. zk.), bai eta maila bereko edo apalagoko arau guztiak ere, araudi honetan xedatutakoarekin kontraesanean edo hemen xedatutakoaren aurka badaude.

Lehenengo azken xedapena.

- 1. Gizarte Ekintzako zinegotziari baimena ematen zaio 15. artikuluan ezarritako zerbitzu-egonaldien gehieneko iraupena eta zerbitzua berriro eskatu ahal izateko igaro behar den gutxieneko epea aldatzeko, betiere eskaeraren mailaren bilakaeraren eta zerbitzua emateko baliabideen eskuragarritasunaren arabera.
- 2. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da zerbitzuen gehieneko iraupena aldatzeko zinegotziaren ebazpena.

Bigarren azken xedapena.

Araudi hau Gipuzkoa Aldizkarı Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 65.2. artikuluan ezarritako epea igaro baita.

Akordio hauek bide administratiboa agortzen dute, beraz, Administrazioarekiko Auzi Eskumenari buruzko, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46 artikuluei jarraiki, ados ez dagoenak bi hilabete ditu errekurtsoa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea argitalpen honen hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Donostia, 2022ko uztailaren 26a.—Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Udalbatzako idazkari nagusia. (5119) Disposición adicional primera.

Sin perjuicio de la potestad municipal para adscribir sus bienes a la prestación de los servicios públicos, a partir de la entrada en vigor del presente reglamento, el llamado «edificio anexo» al Centro Municipal de Acogida Social, se considerará, a todos los efectos, parte integrante de dicho Centro.

Disposición adicional segunda.

El Centro Municipal de Acogida Social podrá habilitar sus instalaciones para acoger a las personas que pernoctan en la calle cuando, debido a las circunstancias meteorológicas, sociosanitarias o de otra índole, se aprecie riesgo para su integridad física o se considere necesario.

Disposición adicional tercera.

Tanto en la interpretación de este reglamento como en el desarrollo de las instrucciones internas de funcionamiento del Centro, se observarán, como principios informadores, la perspectiva de género y la igualdad de trato entre mujeres y hombres, así como la diversidad de los sexos.

Dichos principios se tendrán en cuenta asi mismo en la organización los servicios, en aspectos tales como la distribución de los espacios de pernocta, aseos y vestuarios.

Igualmente, se prestará especial atención a la prevención de las diferentes violencias machistas y las relacionadas con las diferencias entre sexos y la diversidad sexual.

Disposición derogatoria.

Queda derogado el reglamento del Centro Municipal de Acogida Social, aprobado por acuerdo plenario de 30 de marzo de 2004 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 139, de 22 de julio de 2004), así como todas aquellas normas de igual o inferior rango en lo que contradigan o se opongan a lo dispuesto en este reglamento.

Disposición final primera.

- 1. Se autoriza a la persona titular de la Concejalía del área de Acción social para modificar, por resolución, tanto la duración máxima de las estancias del servicio que se establecen en el artículo 15, como el período mínimo que debe transcurrir para poder volver a solicitar el servicio, todo ello en función de la evolución del nivel de la demanda y la disponibilidad de medios de prestación del servicio.
- 2. La Resolución de la Concejalía modificando la duración máxima de los servicios se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Disposición final segunda.

Este reglamento entrará en vigor el día siguiente de su publicación íntegra en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

La entrada en vigor se producirá al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por haber transcurrido ya el plazo previsto en el artículo 65.2. de la Ley, de 2 de abril, 7/1985 reguladora de las bases del régimen local.

Estos acuerdos ponen fin a la vía administrativa de manera que, conforme a las previsiones de los artículos 25 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa podrá ser impugnado directamente ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de 2 meses.

Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio.

San Sebastián, a 26 de julio de 2022.—El secretario general del Pleno, Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga. (5119)